

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### DONEMILIAGAKO UDALA

**2020. urtean Donemiliagako udalerrian kontzejuek egiten dituzten jaiak eta gizarte eta kultura jarduerak antolatu eta egiteko gastuak finantzatzeko udal laguntzen deialdia jasotzen duen Donemiliagako Udalbatzaren 2020ko martxoaren 11ko erabakiaren laburpena**

BDNS (identifikatzailea): 503612

Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz, argitara ematen da deialdiaren laburpena. Testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai:

#### **Deialdiaren xedea**

2020. urtean Donemiliagako udalerriko herrietan egiten diren jaiak eta gizarte eta kultura jarduerak antolatu eta egiteak eragindako gastuak finantzatzea.

Honako hauek jaso dezakete dirulaguntza: Donemiliagako udalerriko herrietan jai egitarauaren barruan egiten diren jarduerak; izaera herrikoa duten eta, oro har, herritar guztientzako diren kultura, jolas, jai eta kirol ekitaldiek; garaikurren erosketek (txapelak, kopak, urdaiazpikoak, gatzak...); eta jardueren berri zabaltzeko karteak.

Diruz lagunduko dira, halaber, agertokiak alokatzeak eragindako gastuak, programatutako jarduerak egiteko halakoa beharrezkoa dela egiaztatzen duten herrietan eta herriok hala eskatu ondoren.

Salbuetsita geratzen dira otorduen, lunchen eta antzekoen gastuak, bai eta elikagaien gastuak ere, hala nola gozoki, edari eta bestelakoak.

Ez dira diruz lagunduko sexua dela eta zuzenean zein zeharka inor diskriminatzen duen jarduerarik.

#### **Onuradunak**

Donemiliagako udalerriko kontzejuek eta batzorde antolatzaileek eskatu ahal izango dute dirulaguntza.

Kontzejuaren oniritzia izan beharko dute 2020an zehar kultura ekintzak eta ospakizunak antolatzen dituzten batzorde antolatzaileek.

#### **Oinarri arautzaileak**

Donemiliagako Udalbatzak 2020ko martxoaren 11n egindako bilkuran onetsiak.

#### **Laguntzaren zenbatekoa**

Deialdi honen zuzkidura 22.500 euro da (334.434.000 eta 338.434.000 aplikazioak).

Kontzeju bakoitzak, gehienez ere, 1.300,00 euroko dirulaguntza jasoko du, eskatutako jarduera kopurua eta eskatzaile kopurua zein diren gorabehera, eta udalaren aurrekontu aplikazioaren muga (18.000 euro) kontuan hartuta. Onetsitako aurrekontu aplikazioa eskaera guztiei aurre egiteko nahikoa ez bada eta aurrekontua handitzerik ez badago, gehieneko dirulaguntza proportzionalki urrituko da.

Agertokiak alokatzeko, kontzeju guztien artean ere, gehienez, 4.500,00 euro emango dira dirulaguntzetan. Kontzeju bakoitzari bideratutako zenbatekoa aurkeztutako eta onetsitako eskaeren arabera izango da.

Behin eskaerak ebatzi ondoren kreditu erabilgarriak badago, kontzejuei eman ahal izango zaie jaietako jardueretarako orkestrak kontratatzeko gastuak ordaintzeko, betiere kontratazioaren zenbatekoa 2.000,00 eurotik gorakoa bada. Gehieneko zenbatekoa, aurrekontu aplikazioan dagoen kreditu erabilgarria kontuan izanik, 1.250,00 euro izango da. Hasierako gehieneko dirulaguntzak, guztira, ezingo du 1.300,00 euro baino gehiago egin eta horrela ez gainditu 2.550,00 euroak.

**Eskaerak aurkezteko epea**

Herri guztiek eskaerak aurkezteko duten epea 2020ko abenduaren 14an bukatuko da.

Salbuespen gisa, 2020ko abenduaren 14tik 31ra bitartean gastuak egiten badira, egiaztagiriak aurkezteko epea 2021eko urtarrilaren 11ra arte luzatuko da. Halakoetan, abenduaren 14a baino lehen, Donemiliagako Udalean aurkeztu beharko da kasuan kasuko eskaera, gastu xedapena ezagutze aldera.

Erdoña, 2020ko apirilaren 21a

*Alkatea*

*ERIKA LETAMENDI HURTADO*